



Arartekoaren ebazpena, 2009ko uztailaren 23koa. Honen bidez Gipuzkoako Foru Aldundiari gomendatzen zaio, familia inguruneko zainketarako diruzko prestazioa eman dezan, mendetasun balorazioaren eskaera aurkeztu zen datatik hasita.

Aurrekariak

1. Pertsona batek Arartekora jo zuen, Gipuzkoako Foru Aldundiak familia inguruneko zaintzarako diruzko prestazioa ez ziolako ordaindu araudiak ezarritako datatik hasita. Data mendetasun balorazioaren eskaeraren egunekoa da. Bere amak 2007ko ekainaren 5ean eskatu zuen mendetasun balorazioa. Mendetasunaren eta Adineko Pertsonen zuzendari nagusiak ebazpena eman zuen 2007ko uztailaren 11n. Bere amari mendetasunaren 3. gradua eta 2. maila, mendetasun handia, aitortu zion.
2. Kexagileak familia inguruneko zainketarako prestazioa eskatu zuen, azaroaren 20ko 133/2007 Foru Dekretuari jarraiki. Dekretuak autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko diru prestazioak arautzen ditu. Prestazioa 2008ko apirilaren 25ko ebazpen bidez eman zioten, baina ez zuen eraginik izan 2008ko otsailaren 1era arte. 2007ko ekainaren 5a ez zen hasiera data izan, eta horregatik gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zuen 2007ko ekainaren 5az geroztik prestazioa jasotzeko eskubidea zuela alegatzeko. Izan ere, egun hartaz geroztik amarekin bizi zen. Errekurtsioarekin batera Elgoibarko Udaltzaingoaren 20080415KTO zk.-dun eginbidea erantsi zuen. Haren bidez honakoa ziurtatu zen: *"Que a requerimiento de (...), DNI (...), se procede a comprobar que en el año 2007 vivía en la vivienda (...) junto con su madre. Que reside desde hace varios años en la citada vivienda y que actualmente reside también en la misma"*.

Errekurtsioa Gizarte Politikako Saileko foru diputatuaren ebazpen bidez ezetsi zen 2008ko ekainaren 20an. Ebazpenaren arabera, ez zen amaren helbide berean erroldatu 2008ko urtarrilaren 29a arte. Horregatik prestazioa data horretatik aurrera baino ez zitzaion eman: *"133/2007 Foru Dekretuak bere 8. artikuluan xedatzen duenaren arabera, eskaera egiteko momentuan baldintza guztiak kreditatu ezin direnean, baldintzak betetzen direla kreditatzen diren dataren hurrengo hilabeteko lehenengo egunetik aurrera sortuko da prestazioa. Beraz, egokia da prestazioak eragina 2008ko otsailaren letik aurrera izatea."*

3. Kexari behar bezalako izapidetzea emate aldera, Arartekoak gertakari horiei buruzko informazioa eskatu zuen. Informazio eskaeran aldez aurretiko gogoeta batzuk aurrerratu genituen. Haiek autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko





39/2006 Legean ezarritako betekizunei eta prestazioak Gipuzkoan arautzen dituen azaroaren 20ko 133/2007 Foru Dekretuari buruzkoak ziren. Erroldatze ziurtagiria nahitaezkoa zela ere aipatu zen, baina behin eta berriz ez errepikatzen beranduago landuko dugu hori.

4. Foru aldundiak informazio eskaerari erantzun zion eta Toki Araubideko Oinarrien legeko 16. artikulua aplikatu zuela argitu zuen:

“Beraz, ez da eztabaidagarri lege mailako araua dela erroldako egiaztagiriei administrazio ondorioetarako dokumentu publiko eta frogagarri izaera ematen diena. 2007ko azaroaren 20ko 133/2007 Foru Dekretuaren Lehenengo Xedapen Iragankorraren arabera, familia esparruan profesionala ez den zaintzaileak benetan emandako zaintza errolda egiaztatutakoan kreditatuko da.

Hots, 133/2007 Foru Dekretuak, Lehenengo Xedapen Iragankorrean, familia esparruan profesionala ez den zaintzaileak benetan emandako zaintza kreditatzeko, zaintzailea helbide berean erroldatuta egotea ez ezik, beste baldintza bat ezartzen du, alegia, zaintzailea benetan bizitzea zainduarekin, eta elkarrekin bizitze hori zuzenbidez onartzen den edozein baliabidez frogatu ahal izango da, jurisprudentiako doktrinak esaten duen bezala. Laburbilduz, 133/2007 Foru Dekretuaren arabera, familia esparruan profesionala ez den zaintzaileak benetan emandako zaintza ondorengo bi baldintzak betetzen direla egiaztatutakoan kreditatuko da: errolda eta elkarrekin bizitzea.

Azaldutakoa dagokigun kasura ekarrita, esan behar da (...), gora jotzeko errekurtsioa jartzearekin batera, elkarrekin bizi direlako egiaztagiria aurkeztu du, udaltzaingoak emana, eta egiaztagiri horrek bigarren baldintza baino ez du kreditatzen, alegia, (...) amarekin bizi dela. Baina inolaz ere ez da kreditatzen 2008ko urtarrilaren 29an helbide horretan erroldatuta zegoenik, eta hori, arestian esan bezala, beharbeharrezkoa da prestazioa ordaindu ahal izateko.

Beraz, kasu honetan, antolamendu juridikoan ez da arau-hausterik izan, eta ez dagokio baliogabetzea 2008ko martxoaren 26ko ebazpena, zeinaren bitartez 2008ko otsailaren 1etik aurrera onartzen den familian inguruan zaintzeko prestazio ekonomikoa.”

5. Ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak 133/2007 Foru Dekretua aldatzeko asmoa duela jakinarazi digu. Erabaki horrek, ordea, ez dio eragiten kexa eragin duen espedienteari.



6. Hori guztia ikusita, kexan adierazitakoa eta jasotako gogoetetan eta informazioan esandakoa aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu zuri honako gogoeta hauek helaraztea:

Gogoetak

1. Erakunde honetara bidalitako erantzunetik eta gora jotzeko errekurtsioa ezeztetik ondoriozta daiteke, prestazioa eskaera datatik kontatzen hasita ez ordaintzeko arrazoia erroldan izena eman izanaren data hori ez izatea dela. Beraz, laguntza jaso ahal izateko arauak ezartzen dituen betekizunak aztertzea da helburua. Zehazki, zaintza behar duen pertsonaren etxe berean bizikidetasuna dagoela ziurtatzeko dagoen agiri bakarra aurkeztea, errolda agiria, hain zuzen ere.

Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak honakoa ezartzen du 14.4 artikuluan: *"El beneficiario podrá, excepcionalmente, recibir una prestación económica para ser atendido por cuidadores no profesionales, siempre que se den condiciones adecuadas de convivencia y de habitabilidad de la vivienda y así lo establezca su Programa Individual de Atención"*.

Prestazio hau Gipuzkoako Lurralde Historikoan arautzeko azaroaren 20ko 133/2007 Foru Dekretua baliatu da. Dekretuak bete beharreko hainbat baldintza ezartzen ditu 16. artikuluan:

"a) Prestazio horren egokitasuna zehaztea, oinarrizko gizarte zerbitzuek emandako txostenaren bitartez.

b) Bere mendekotasun egoeratik ondorioztatutako arreta eta zaintzak bere bizilekuan ematen aritzea eta mendekotasun gradu eta mailaren beharren arabera egokiak izatea.

c) Etxebizitzak elkarbizitza eta bizigarritasun baldintza egokiak izatea, behar diren zaintzak eman daitezen.

d) Profesionala ez den zaintzaileak honako hauek bete beharko ditu:

- Ezkontidea, izatezko bikote kidea edo odolkidetasun, ezkontza ahaidetasun edo adopzioz senidea izatea senidetasun hirugarren graduraino, eta mendeko pertsonarekin bizitzea.*
- 18 urte beteak izatea.*
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzaileen Gizarte Segurantzako afiliatze, alta eta kotizazioari buruzko araudia betetzen duela kreditatzea."*

Xedapen iragankorrean ezarrita dago prestazioa ematen hasteko data:



“b) Familia inguruneko zaintzetarako zein profesionalak ez diren zaintzaileei laguntzeko prestazio ekonomikoa:

Mendekotasuna baloratzeko eskaera datatik edo profesionala ez den zaintzaileak familia esparruan benetan emandako zaintza kreditatzen denetik, ondorengo data balitz.

Familia esparruan profesionala ez den zaintzaileak benetan emandako zaintza ondorengo baldintzak betetzen direla egiaztatutakoan kreditatuko da:

1. Erroldatze eta elkarbizitza, hain zuzen ere, profesionala ez den zaintzailea onuraduna zaintzen noiztik ari den kreditatzeko, Gizarte Segurantzaren aurrean duen egoera alde batera utzita.”

Gipuzkoako Foru Aldundiak betekizun berberak aurreikusi ditu, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko diru prestazioak arautzen dituen 133/2007 Dekretuan (14.4 art): *“que se den condiciones adecuadas de convivencia y de habitabilidad de la vivienda...”* (133/2007 Foru Dekretuko 16. art.). Baldintzen artean ez da aipatzen *“errolatze agiria eduki beharra”*, izan ere, agiri hori ez da nahitaezko betekizuna prestazioa jaso ahal izateko, bai, ordea, frogatu modu bat.

Gora jotzeko errekurtsioa ebatzi duen ebazpenean, foru aldundiak argudiatu du, eskaera egunean prestazioa jasotzeko betekizun guztiak betetzen ez badira, baldintzak betetzea ziurtatzen den datako hurrengo hilabeteko egunean sortuko dela prestazioa. Kexagilea 2008ko urtarrilaren 29an erroldatu zen etxean. Hortaz, Gizarte Politikako Saileko foru diputatuaren aburuz, prestazioak otsailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

133/2007 Foru Dekretuko xedapen iragankorrak ezartzen du zaintza familia ingurunean benetan burutzen dela frogatzen duen proba egin aurretik erroldatzea eta onuraduna zaintzaile ez profesional baten zaintza jasotzen ari denaren data ziurtatzen duen bizikidetasuna egiaztatuko dela, Gizarte Segurantzako egoera edozein delarik ere. Horrenbestez, araudiak berak mugatzen ditu frogatu bideak, eta horrek zuzenbidearekin bat datorren analisia beharrezko egiten du.

Erakunde honetara bidalitako erantzunak zioen erroldatze agiria prestazioa emateko betekizun berezia dela –data bat adierazi ez denez, ez da ziurtatu bete denik-, baina horrek ez du babes juridikorik prestazioaren araudian. Erroldatze agiria frogatu bidea da, baina ez araudiak ezarritako baldintza.





2. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (HAAJAPEL) froga bideak arautzen ditu 80.1. artikuluan eta hala ezarrita dago: "*Zuzenbidean onargarri den edozein frogabidez egiazta daitezke prozedura ebazteko garrantzizko diren egitateak*". Lege ezarpenari jarraituz, erabakia hartzeko garrantzitsuak diren gertakariak ziurtatzea ezin da froga bide bakarraren mende egon. Herritarrak zuzenbidean onargarria den edozein froga bide aurkez dezake: agiri publikoak edo pribatuak, aldean edo lekukoen itaunketa, presuntzioak, hau da, Kode Zibilean eta Prozedura Zibilaren Legean jasotako frogak bideak.

Horren harira, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Gaietako Sailak, lanbidea eta familia bateratzeko neurriak arautzen diren uztailaren 17ko 118/2007 Dekretuan, 10.5 d) artikuluan, halako ezarpena egin du eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriei buruz:

"Eskatzailearen erroldatze-ziurtagiri eguneratuak, bizilekuan bizi diren lagun guztien zerrenda eta eskatzailea udalerrian erroldatu zen eguna barne. Laguntzaeskaera aurkezten den eguna baino hilabete bat baino lehenago emandako erroldatze-ziurtagiriak ez dira onartuko.

Erroldatze-ziurtagiriak frogatzen ez badu eskatzailea udalerrian bizi dela, laguntzaren organo kudeatzaileak eskaera egingo dio eskatzaileari udalerrian bizi dela egiaztatzen duten dokumentuak aurkez ditzan.

Hau da, beste laguntza horien araudian ezarri da erroldan izen ematea ez dela benetako bizitokiarekin bat etorri behar, eta horretarako frogak epea ezarri da.

133/2007 Dekretuak egintzak egiaztatzeko bestelako frogatze aukerak kanpo uzten ditu. Horrek pertsonen defentsa aukerak mugatzen ditu eta legezketasun printzipioa urratu, zehazki lehen aipatutako HAAJAPELeko 80.1. artikulula, han ezartzen baita frotatzeko bideen askatasuna.

Herri administrazioek frogatzeko bideak ordenatu ditzakete, baina ezin dituzte agiri bakarrean mugatu. Bereziki, aintzat hartzen badugu, lege balioa ez duen xedapen batek ezin dituela frogak bideak mugatu.

Legezketasun printzipioa aplikatuta, foru aldundiak Espainiako Konstituzioaren 9. artikuluan ezarritako ezarpenak bete behar ditu: "*Konstituzioak bermatzen ditu legezketasun-printzipioa, arauen arteko hierarkia, arauen publikitatea, xedapen zehatzaileen atzeraegin eza –xedapenok banakako eskubideei begira onargarri izan ez edo eskubideok murrizten dituztenean-, segurtasun juridikoa, erantzunkizuna eta botere publikoen nahierakeriaren debekua*". HAAJAPELeko 51. artikulua honela dio: "*Administrazioaren xedapenek ezin dute ez konstituzioa ez inolako legerik hautsi, ezta arautu ere...*" eta Kode Zibileko 1. artikulua hala dio: "*Ez dute baliorik izango goragoko lerruneko xedapenen bat urratzen duten xedapenek*".



Administrazioko xedapenek ezin dituzte legeak urratu. Arlo honetan bada lege erreserba printzipio bat. Horrek esan nahi du foru aldundiak, alor honen arautzaile denez gero, administrazio prozedurako bermeak aintzat hartu behar dituela. Jurisprudentiaren arabera, frogabideak lege mailako arau baten bidez baino ezin daitezke mugatu. Hala ageri da Auzitegi Goreneko 1988ko urriaren 25ko epaian (RJ 1988, 8222): *“La limitación que cita la Orden de 21 de noviembre de 1979 respecto a que los habitantes del núcleo estén debidamente censados, en que se apoyan las resoluciones impugnadas, es contraria a lo dispuesto en el Real Decreto 909/78, por atentar al principio de jerarquía normativa establecido en el artículo 23 de la Ley de Régimen Jurídico de la Administración del Estado y el 9.3 de la Constitución Española, al imponer un requisito-el censal- que no es exigido en el Real Decreto, de superior rango normativo a aquella orden, sentencia del TS de 11 de junio de 1984, 21 de marzo de 1985, etc.- ya que la limitación de los medios de prueba sólo puede hacerse por Ley, pues de otra forma se vulneraría el art. 88 de la Ley de Procedimiento Administrativo”.*

Ondorioz, ez agindu batek, ezta dekretu batek *“puede recortar el repertorio de los medios de prueba utilizables y que tan ampliamente establece nuestra Ley de Procedimiento Administrativo”*, Auzitegi Gorenaren 1989ko otsailaren 10eko epaia (RJ 1989, 1708). Era berean, Auzitegi Goreneko 1989ko martxoaren 21eko (RJ 1989, 2247) eta 1992ko apirilaren 7ko (RJ 1992, 3432) epaiak.

3. Auzia ez da erroldatze agiria zuzenbidean balio duen froga bidea izatearen gainekoa, foru aldundiak erantzunean argudiatu bezala. Aitzitik, iuris tantum presuntzioa duen froga modua da, hortaz, kontrakoa frogatzeko aukerarik badago.(...) Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta zegoen, baina bizi zen ez bestelako etxe batean. Tokiko Araubidearen Oinarriei buruzko Legeko 16. artikulua honakoa ezartzen du erroldan izena emateari dagokionez. *“Udalerriko errolda udalerriko auzotarrak jasota agertzen dituen administrazio-erregistroa da. Erroldako zehaztasunak udalerrian bizilekua izan eta bertan ohiko egoitza izatearen froga dira. Zehaztasun horien gainean emandako ziurtagiriak agiri publiko eta fede-emaileak izango dira administrazio-ondorio guztietarako”.* Manu hori irakurrita ateratzen dugun ondorioa da erroldan izena ematearen inguruko ziurtagiria baliozko frogabidea dela erroldatutakoa udalerrian bizi dela eta ohiko bizilekua bertan duela egiaztatzeko, baina hori irakurrita ezin esan daiteke frogabide hori bakarra denik.

Pertsona batek helbide jakin batekin erroldan izena emateak etxe horretan bizi denaren froga modua da, esan bezala. Horrek balioa eduki dezan, ordea, biak bat etorri behar dira. Auzitegi Gorena erroldaren izaeraz mintzatzen denean, kontrako frogapena bideragarria dela dio, bestelako froga bidez bizitokia beste etxe batean dagoela egiaztatzen bada. 1984ko ekainaren 11ko eta 1985eko azaroaren 11ko epaiak: *“El padrón municipal es instrumento público fehaciente para todos los efectos administrativos y la inscripción prueba plenamente la condición de que se trate. No obstante, cabe la prueba en contrario que*



desvirtúe la presunción que el padrón proclama, puesto que el efecto probatorio privilegiado, que cabe atribuirles respecto del dato de la residencia, que es el propio de los documentos públicos –arts. 53.3 de la LBRL y 89 del RPDT– únicamente se produce con plenitud si se presenta aislado, pero no como acontece en el caso que se enjuicia, si su eficacia es contrastada con otros medios de prueba susceptibles de provocar el convencimiento de la falta de concordancia del contenido del padrón con la realidad”.

Horrenbestez, posible da erroldako inskripzioa eta bizitokia bat ez etortzea.

Jurisprudentziak agiri hau interpretatzeko izan duen modua dela eta, *iuris tantum* presuntzioa ezarri da eta kontrako frogapena onartzen da. Auzitegi Gorenaren 2004ko uztailaren 13ko epaiak hala dio: “*Y de otra parte, porque la valoración y declaración que la sentencia recurrida hace, sobre que las bases del concurso exigían el acreditar la residencia en el Municipio y no el empadronamiento, como mantienen y defienden las partes recurrentes, es también en todo conforme con las bases del concurso señaladas por el órgano que lo convocó. El Consejo de Administración, pues esa convocatoria, como incluso todas las partes aceptan, como es obligado, solo se refería a acreditar la residencia por más de dos años y siendo ello así, no cabe apreciar que concurra ninguna de las infracciones que se denuncian, relativas todas a que se debía entender, de acuerdo con las normas que citan, que la residencia se debía acreditar por el oportuno certificado de empadronamiento. Pues, por un lado, el concurso se ha de resolver de acuerdo con lo que sus bases expresan, que vinculan tanto a la Administración convocante como a los participantes, y en las bases la referencia era estrictamente la residencia en el Municipio, y por tanto si el Ayuntamiento hubiera querido que solo participaran los empadronados tenía que así haberlo declarado, por otro porque si bien es cierto que el Padrón es un documento oficial que acredita la residencia, no hay que olvidar, que la presunción que establece, es una presunción iuris tantum que admite prueba en contrario, como ha declarado y valorado esa Sala en las sentencia que la sentencia recurrida refiere de 28 de abril de 1998 y de 13 de octubre de 1998, en la de 2 de enero de 1979 y en particular en la de 20 de febrero de 2002 en la que se declara entre otros, que el Padrón es una prueba a destruir por hechos en contrario, cuando se demuestre que tales hechos se han producido efectivamente y son ciertos y veraces”.*

Erroldan izena emateak duen frogapen balioari dagokionez, Donostiako Lan Arloko 2. epaitegiak 2008ko azaroaren 19an eman zuen epaia ere aipatuko dugu. Hartan Gipuzkoako Foru Aldundia ere tartean izan zen. Epaia horrek udal erroldan izena emateak daukan frogapen balioa aipatzen du. "Frogapen printzipioa" dela dio, eta helbide kontzeptuak dimentsio plural zabala duela eta ez datorrela beti bat erroldako "inskrizioarekin edo auzo administratiboarekin.

“Cabe recordar a este respecto, que las discordias existentes entre lo consignado en el padrón municipal y la situación de hecho real de los en él inscritos, y la propia complejidad del concepto legal de residencia y



domicilio, ha llevado a la doctrina jurisprudencial (guztienatik, Auzitegi Goreneko 1. salako epaiak, 1991eko azaroaren 15ekoak eta 2005eko maiatzaren 13ko autoa, sala berekoa) a considerar que el empadronamiento no genera una presunción de residencia y domicilio 'iuris et de iure', sino meramente un principio de prueba de la residencia habitual y del domicilio, cuya última determinación compete al Tribunal de Instancia, debido a que el concepto de domicilio posee una dimensión plural amplia, no siempre coincidente con el empadronamiento o vecindad administrativa."

Agiri publiko eta fede emaile izaerak ez du esan nahi kontrako frogapenik ezin denik egon. Halakoa da kasu hau, pertsona erroldatuta zegoen udalerria eta bizi zena bera ez zirelako.

Ondorioz, bizikidetasuna errolda agiri bidez egiaztatzea bide bakartzat hartzeko foru aldundiaren erabakiak froga bideen mugapena dakar. Horrek ez du babesik zuzenbidean, bizikidetasuna eta bizitokia toki berean direla egiaztatzeko zuzenbidean baliogarri den edozein bide erabil daitekeelako.

4. Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko Abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarri du progresiboki aplikatu behar dela. Lehenengo azken xedapenean egutegi bat ezarri du, eta haren arabera, 2007. urtean, 3 gradua, mendetasun handia, 2 maila duten pertsonentzako zerbitzuak eta prestazioak gauzatuko ziren. Kasu hau talde horretakoa da. Alabak, kexagilea, amaren zaintza bere gain hartu izan du urte askoan, eta horri babes informala izena jarri diote. Lege hau familiaren laguntza data batetik aurrera aitortzeko egin da. Hau da, prestazio hau jasotzeko eskubidea berau arautzetik etorri da. Horregatik, legezko ezarpenak aintzat hartu behar dira hari eskubideak emateko, nahiz eta egintzak aurrekoak izan.

Amak 92 ditu, alzheimerra dauka, eta gutxi gorabehera duela 9 urtez geroztik alabaren zaintza behar izan du. Egin dioten baloraziotik ondoriozta daiteke beste pertsona baten laguntza behar duen pertsona baten kasua dela hau. Abenduaren 14ko legeko 26.1c) artikulua: mendetasun handia; *"cuando la persona necesita ayuda para realizar varias actividades básicas de la vida diaria varias veces al día y, por su pérdida total de autonomía física, mental, intelectual o sensorial, necesita el apoyo indispensable y continuo de otra persona o tiene necesidades de apoyo generalizado para su autonomía personal"*. 2 mailari dagokionez: *"Cada uno de los grados de dependencia establecidos en el apartado anterior se clasificarán en dos niveles, en función de la autonomía de las personas y de la intensidad del cuidado que requiere"*. Bistan da araudiak babesten duen egoera prestazioa jasotzeko eskubidea sortzeko legeak ezarritako data baino lehenagokoa dela.



5. Kexagileak, bizikidetasuna ziurtatze aldera, Egoibarko Udalak emandako bizikidetasun ziurtagiria aurkeztu du.

Foru aldundiak ez dio baliorik eman agiriari eta ez du inolako jardunik bideratu eskatzaileak adierazitakoaren egia argitzeko. Aitzitik, emandako datuen egiazkotasuna ikertzeko esfortzua egiteko betebeharra dauka. Foru aldundiak proposatutako bitartekoak egoki diren erabakitzeko eskumena dauka, eta erabaki hori arrazoitu behar du (HAAJAPELeko 80.3 art.: *“Prozeduraren instrukzio-egileak bakar-bakarrik bota ditzake atzerainteresdunek proposatutako frogak, argi eta garbi desegokiak edo alferrekoak badira, eta, beti ere, arrazoitutako ebazpen bidez”*). Halaber, ofizioz jardun behar du *“Prozedura izapidetzen duen organoak bere kabuz egingo ditu ebazpena emateko behar diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko instrukzioegintzak. Interesdunek proposa ditzakete, nolana ere, beren esku-hartzea dakarten jardunak edota legez edo erregelamenduz ezarritako izapideak dakartzatenak”* egiteko (HAAJAPELeko 78.1 art.). Foru aldundiak ez du frogapen jardunik burutu, nahiz eta bizikidetasuna ziurtatzen duen beste agiri bat aurkeztu zaion. Agiria agiri publiko administratiboa da HAAJAPELeko 46.4. artikuluan ezarritakoari jarraiki, hortaz, egiazkotasun presuntzioa dauka.

HAAJAPELeko 80.2. artikuluan honakoa ezarri da: *“Prozeduraren instrukzio-egileak frogaldia egitea erabaki dezake, administrazioak egiazkotzat jotzen ez baditu interesdunek alegatutako egitateak edo hala eskatzen badu prozeduraren izaerak. Frogaldia, gehienez, hogeitahamar egunekoa izango da eta, gutxienez, hamarrekoa, egoki iriztitako frogaguztiak egin ahal izan daitezten”*. Foru aldundiak, bere ahalmenak baliatzerakoan, pertsonak prestazioa jasotzeko baldintzak betetzen direla egiaztatu behar du. Horrek nahikoa epai elementu edukitzea dakar, bizikidetasunaren errealitatea egiaztatu ahal izateko, eta ezin dira udal errolda izena ematearekin mugatu. Aintzat hartu beharra dago pertsonen egoki irizten dituzten agiri eta justifikazioak aurkez ditzaketela eta administrazioek, prozeduraren instrukzioaren edozein unetan, agiri ekarpenean iker ditzaketela. Edo bestela, bestelako epai elementuak iker ditzakete, ebazpenerako garrantzitsuak direla uste badute.

Foru aldundiak ez zuen frogapen eperik irekitzea hitzartu, nahiz eta gertakari korapilatsurik egon badagoen (HAAJAPEL 80.2 art.). Entzunaldia prozedurako bermea da, eta administrazio ona edukitzeko eskubidea deritzon horren zati da. Izapidea funtsezkoa da, pertsonen eskubideak oinarri hartzen dituen bitartekoak aurkezteko aukera ematen baitu.

Prozedura oker hori zuzendu dela uste da, izan ere, kexagileak bere eskubidearen oinarri den agiri bat aurkezteko aukera izan du gora jotzeko errekurtsua dela eta. Hala ere, arreta berezia jarri behar zio prozedura administratiboaren instrukzio faseko entzunaldiaren garrantziari, hori arbuatzeak defentsa gabezia eragin baitezake. Administrazioak interes orokorraren alde egin behar du (Espainiako konstituzioko 103. art.). Frogapen



jardunak aukera ematen dio administrazioari bere erabakiaren oinarri den egitatea bete dela egiaztatzeko.

6. Elgoibarko Udalak emandako bizikidetasun egiaztagiria herri-administrazioiko organo batek emandako agiri balioduna da, HAAJAPELeko 46.4 art. Garrantzitsua da aintzat hartzea bizikidetasuna egiaztatzen duen administrazioa eta erroldatze agiria 2008ko urtarrilaren 29ko datarekin eman zuena berbera direla. Elgoibarko Udalak ezin zuen beste datarik egiaztatu, izan ere, kexagileak data horretan baino ez zuen eskaera egin, Elgoibarren lehenagotik bizi bazen ere. Ondorioz, foru aldundiak eskatzen duen froga modua ezin daiteke lortu. Prestazio bat jasotzeko **lor ezin daitekeen** agiria aurkezteko eskatzea ez dator bat ordenamendu juridikoarekin. Elgoibarko Udalak emandako agiriak bakarrik egiazta zezakeen agiri publiko administratibo bidez bizikidetasuna mendetasun aitorenaren eskaera datatik egon zela.

Ondorio gisa, Elgoibarko Udalak emandako agiriaren bidez bizikidetasuna egiaztatzea frogatzeko bide egokia da. Horren bidez araudiak ezartzen duen egitatea jazo dela sinets daiteke: *"Etxebizitzak elkarbizitza eta bizigarritasun baldintza egokiak izatea, behar diren zaintzak eman daitezen"*.

Agertutakoa ikusirik, nahikoa juiziozko elementu dago ondorio batera heltzeko: kexagileak 39/2006 Legean eta 133/2007 Dekretuan ezarritako baldintzak betetzen ditu. Horrenbestez, prestazioa 2007ko ekainetik aurrera ordain behar zioten, arau horrek dituen laguntza eta prestazio bermeei jarraiki.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten da:

13/2009 GOMENDIOA, uztailaren 23koa, Gipuzkoako Foru Aldundiari egina

Familia ingurunean pertsonak zaintzeko diruzko prestazioa ematea, mendetasun egoeraren balorazioaren eskaera egin zeneko datatik kontatzen hasita.

